

Ikasmaterialetako euskararen zuzentasun-egokitasunaren bilakaera: 2000-2012

Andres Alberdi

(EIMAKo koordinatzaile ohia)

Elgoibarren, 2013ko ekainaren 20an

Sinopsia

Bi garaitako ikasliburuak aztertu dira txosten hau egiteko: 2000. urtearen bueltako 15 ikasliburu eta 2010. urtearen bueltako beste 16 (1). Garai batekoak zein bestekoak izan, maila eta espezialitate akademiko guztietako liburuen gainean egin da azterketa. Aliritzira egin da liburuen aukeraketa (ikus eranskina). Ondorio argia eta eztabaida ezina atera da: zerbait baino gehiago aurreratu da azken urteotan euskal ikasmaterialgintzaren zuzentasun-egokitasunean; euskal ikasliburuek ez dute inongoaren inbidiarik, eta haietan erabilitako euskarak, aipatutako epe horretan, oso nabarmen egin du aurrera estandarizazioaren bidean.

Aurkibidea

1. Sarrera
2. Testuingurua
3. Metodologia
4. Analisisien emaitza-ondorioak
 - 4.1. Lehen aldikoen ezaugarriak
 - 4.2. Bigarren aldikoen ezaugarriak
5. Ondorioak eta gerokoak

1. Sarrera

Txosten honek oinarri jakin bat du: EIMAREN ibilia aztertzeko 2011ko abenduan lerro hauek sinatzen dituenak –inoren mandaturik gabe– Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuari eginiko proposamena, hain juxtu ere (2).

Aurki izango da dozena bat urte EIMAren Ikasmaterialen Aholku Batzordea (IAB) eratu zela. Hamaika bilera, eztabaida, proposamen eta liburuki atondu ditu ordutik hona batzorde horrek -zenbait ez nolana hikoak, gainera-, eta komeni da neurtzea eginbide horrek zer oihartzun eta eragin izan duen benetan gure eskoletako ikasmaterialetan, eta, gerora begira, baita zer uste dauden esplizitatzea ere. Honela zioen, hain juxtu, arestian aipatutako txostenak bere hasierako paragrafo batean: "Orain, IABren 10 urteko ibilbidearen ondoren, une egokia litzateke beste urrats bat emateko. *Autoebaluazio objektibo bat egitea proposatu nahi du idazki honek. Aztertu behar genuke ea egiten ari garen saiokak ba al duen onurazko gizarte-eraginik eta zenbatekoa den eragin praktikoa hori. Alegia, bada garaia EIMAk konparazio-hausnarketa sinkroniko edo/eta diakroniko bat egiteko, zer hizkuntza molde darabilgun azter dezagun; gure estilo-liburuaren konpasean, komeni da aztertzea eta hausnartzea zer ezaugarri dituen taxutzen joan garen prosa didaktikoak, eta hori nola aplikatzen den eguneroko praxian".*

Bi helburu nagusi ezarri zitzaizkion orduan azterketari. Alde batetik, aztertzea EIMAren estilo-liburuan arautua ikasmaterialetan objektiboki nola aplikatu izan den, eta saiatzea antzematen linguistikoki non egon diren *irabaziaz* (zuzentasunean?, automatismoetan?...) eta non *galera* (molde batzuen galera?, kolore bakarreko hizkuntza?...), edo beste modu batera esanda, non dauden ondadeak eta non ahuldadeak. Eta bestetik, antzemandea, ikasmaterial egoki bat lortzeko, zer ezaugarri eta auzi linguistiko/estilistiko dauden oraindik ere arau edota gomendioetan zedarritu gabe. Horretara dator hemen aztertutako liburuen gainean eginiko analisia.

Zenbaitek uste izango du, beharbada, hori baino eginkizun beharragorik badagoela EIMAren mementoko eginean. Baliteke hala izatea, ez dago ukatzerik. Lerro hauen egileari ez dagokio erabakitzea zein den beharren. Kontua da testu zuzenak eta egokiak behar badiugu, hau da, euskal hiztun edo erabiltzaile estandarren intuizio linguistikoarekin bat datozenak, ezinbestekoa dela ikasmaterialak etengabe bahetzea, haietan eskasetik dagoena garbitzeko edota murizteko, eta onetik dagoena ugaritzeko eta hobetzeko. Eta EIMAren eginkizunetako bat hori izanik, on litzateke egokiera hau ere aprobeztatzea.

Ikasmaterialen kalitatea zaintzeko eginkizun behinenetako bat zuzenketa da, dudarik gabe, eta serio aritzen dira horretan EIMako aztertzaileak, prosa-hizkera zehatz, zorrotz eta zalu baten atzetik. Zer eta nola zuzentzen den albait ongien hausnarturik eta antolaturik edukitzea ere ezinbestekoa da, ardura horri behar bezala erantzun nahi bazaio. Aurrera begira aritu nahi denez, ahalbidetuko ahal du txosten honek egiteko horren ondorioen ikuspegi zabalago eta kontzienteago bat edukitzea!

Ezin ezkuta aski estutasun larrian jartzen duela txosten honek lerro hauen egilea (eta bide batez baita EIMako kide guztiak ere), norbaitek pentsa baitezake beren buruak ederresteko bitarteko gisa darabilizatela haiek aztergai izan diren datu-ondorioak. Ez da hori izan asmoa. Onerako edo txarrerako, hemen esanak tarteko, ardura nagusia inoiz ez da izan inoren goratzapen-premia, baina esan behar da *emaitzak oso positiboak eta baikorrak direla. Horrenbestez, gainera, uste zena (bagenekiena?) berresteko balio izan du analisiak: urteotako uzta aberatsa eta emankorra izan da. Uste zaharrak berritzera etorri dira datuak, beraz, inork egiaztatu beharrik bazuen. Koordinatzaileak 2010eko Leioako Jardunaldietan esandakoak (3) guztiz berretsita geratu dira. Iritziak iritzi, honako sei lorpen hauek antzematen zituen hark orduan ikasmaterialen bilakaeran, eta are sendoturik ageri dira horiek oraingoan:*

1. *Ikasmaterialetako prosa moldearen historia egiten hasia dela gurean.*
2. *Testu-gramatikaren ekarriak nabarmen jokatu duela hobekuntza horretan.*
3. *Kontuan hartzen dela ikas-irakasliburuek ezaugarri bere-bereak dituztela.*
4. *Gaztelaniaren morrontzatik libratzen hasiak garela.*
5. *Euskararen baitako korapilo batzuk askatzen hasiak garela,*
6. *Kontzientzia garela euskararen kalitatearen arazoa arazo poliedrikoa dela,*

Azkenik, esan behar da –besterenik ez baitago– txostengilearen isuriak, joerak eta gogoak, zeharka bada ere, ezinbestean agertuko direla noski analisi honetan. Horregatik, komeniko litzateke auzi honetan esku eta iritzi duten guztiek parte hartzea, ondo irizten bada, behintzat. Beharrezkoa litzateke EIMAKo IABko eta aztertzaileen taldeko beste kideen ekarpenez hornitzea txosten hau, hala iritziak eta ekarpenak gehitzeko, nola laprastadak eta auziak laburtzeko, mozteko edota zeharo ezabatzeko. Ez litzateke alferrikakoa izango argitaletxeetako hizkuntza-arduradunek ere beren ekarpenak egitea, bestelakoak ikus baititzaizkete haiek. Besteren begiz baliatzeak gure bista handitzea eta zorroztea ekarriko du.

2. Testuingurua

Zehatz dezagun are gehiago. Txosten honen helburu nagusia ez da izan euskarazko ikasliburuen hizkuntza moldearen ezaugarriak oro analizatzea; hori baino xumeagoa izan du helburua. Izan ere, osotasunean aztertzeak luze joko luke, eta ez da hori txosten honek jaso nahi izan duena. Bi garai ezberdinetako ikasliburuetako hizkuntzaren bilakaera aztertu nahi izan du soilik –bi garairi argazkia ateratzea, alegia–, eta EIMAREN ekin eta erabakien aldetik analizatuz bakarrik aztertu ere.

Kontuan izan behar da, aztergai izan ditugun lehen garaiko liburuak argitaratu zirenerako (\pm 2000. urtea), EIMAK artean bere estilo-liburuaren liburukirik ez zuela argitaraturik, baina Euskaltzaindiak bide handia egin zuela estandarizazio-lanean. Esate baterako, *Hiztegi Batuaren* 1. itzulia egin zegoen (2000ko otsailean amaitu zen, 1994an hasita). Beraz, 20.000 hitz arautuak zeuden 2000rako. Ordurako, ikasliburuetan erabilera ezinbestekoa duten beste hainbat erabaki *handi* ere hartuak zituen akademiak; hauek, besteak beste: zenbakien idazkera, *bat* zenbatzailearen deklinabidea, hitz elkartuen osaera eta idazkera, orduak nola esan, hiriburu- eta estatu-izenak, etab. Normala da, horretara, txosten honetarako aztergai izan diren materialetan guztietan kontu horiek eroso samar bideratuak izatea eta horien inguruko arazo-ezinak jada gainditu samar izatea.

Nolanahi ere, ez da ahaztu behar, bestetik, material horietan, 2000. urte inguruan argitaratuak izanik ere, *de facto*, zeharka bazen ere, gerora EIMAKo liburukietan jasotzen dena alde aurretik aplikatua antzematen dela jadanik askotan, izan ere, onespenez-azterketa lortzeko nahitaez EIMAKo aztertzaileen galbahea pasatu beharra izan zuten, argi antzematen da haien *eskua* eta eragina. Eta ez haiena bakarrik. Bestelako interbentzio edo esku-sartzerik ere ikusten da denboran barrena egin: badirudi material batzuk -nahiz eta lehen inprimazioko datari eutsi (2000.

urtearen bueltakoari, alegia)- geroagoko edizioetan (berrinprimatzeetan, hobeto esan) beste orraztu doi eta zorrotzagorik ere izan zutela igartzen da, haietan ageri diren datu, xehetasun eta ohitura batzuk denboran geroago hartu edota batutakoak baitira.

Txostenak ez du aho-hizkeraren azterketarik jaso tamalez. Desio zukeen, baina ez da bideragarria gertatu. Ez, noski, ahoskerak edo prosodiak beste atalek baino garrantzi txikiagoa duelako, baizik eta, EIMAren gomendio-erabakiak izaki azterketaren giltza, EIMAren iritzia oraindik ez delako argitara eman (4).

3. Metodologia

Esana dugu arestian: aipaturiko bi garaietako ikasliburuaren arteko aldea analizatzea izan da helburua; alegia, haien bilakaera aztertzea eta elkarrekin erkatzea.

Erkatze-lana zabalagoa ere izan zitekeen denboraren gurpilean; alegia, dataz, 2000. urtea baino lehenagoko materialak ere azter zitezkeen, baina haiek EIMAren erabakien eraginetik kanpo geratzen zirenez, ez dira kontuan hartu, txosten honen helburutik kanpo geratzen zirelako.

Aliritzira egin da liburuaren aukeraketa. Garai batekoak zein bestekoak izan, aldagarritasuna jomugan, maila eta espezialitate akademiko guztietako liburuak izatea bakarrik izan da ardua. Ez da beste lagin-parametrorik erabili, ezta testu originalak ala itzulpenak izatea ere, gaurko ikasmaterialetan parametro hori erabakigarria ez delakoan.

Erkaketa horretan erabili den eredu teorikoa betiere EIMAren estilo-liburuaren liburuak izan dira. Lehen garaikoetan, ezinbestean, *in mente* bakarrik zeuden, jakina, arau-gomendioak; bigarrenean, liburuak argitaratuetan luze-zabal garatuak jada.

Paperezko formatukoak aztertu dira batik bat. Hala izatearen arrazoia sinplea da: garaitsu horretan, EIMako ahalegina formatu horretakoei begira zegoen kasik eskusiboki; hala ere, kontuan hartu ditugu gure eskuetatik igarotako formatu digitaleko azken boladako bizpahiru ere (ikus eranskina).

Azttertutako laginari dagokionez, esan behar da ikasliburu guztietan, beti, gutxienez, 30 orrialde aztertu direla (aipaturiko eranskinean dago adierazita liburu bakoitzeko zein orrialde aztertu diren). Hala egin da uste delako orrialde-kopuru hori aski lagin badela, estiloak estilo eta aiurriak aiurri, ikasliburu bakoitzaren on-gaitzak antzemateko.

Azken ñabardura garrantzitsu bat: txosten honen ahalegin nagusia ez da xehetasun guztiak xehe-xehe eta zehatz-zehatz jasotzea, laburturik ere aski eta gehiegi delako ustean. Hala, bada, adibideak-eta, esate baterako, argigariak direla irizten denean bakarrik eman dira (5).

4. Ikasliburuaren analisisen emaitza-ondorioak

4.1. Lehen aldikoen ezaugarriak (2000. urtearen ingurukoak)

(Hartu kontuan gorago adierazitako bi datu hauek: alde batetik, *Hiztegi Batuaren* 1. itzuliaren berri badute ikasliburuok, Euskaltzaindia 1994an hasi baitzen hura argitaratzen, eta 2000ko otsailean amaitu; bestalde, EIMAn aztertzaileen orraztua ere jasoa dute, eta, nahiz eta EIMAn liburukiak 2004an hasi argitaratzen, haien zeharkako eragin erreala lehenagokoa dute).

Aztertutako guztiek (15 liburu) zuzentasun- eta egokitasun-maila oso ona dute (baita gaurko neurriekin balioetsita ere). Meritu handia dute; are gehiago kontuan izanik orduko euskararen baitan zeuden oztopo eta ezinak gaurkoak baino ugariagoak zirela. Onarpen-mailari begira jarrita, zeharo txarrestekorik ez dago; gutxieneko eskakizunetara iristen ez den ikaslibururik ez dago garai honetakoetan. Egia da nabari ez den hutsa ezin dei daitekeela huts, baina esan behar da azterketa nahiko zorrotza egin zaiela liburuei, eta zirrikitu estuenak ere miatu direla, eta emaitza oso positiboa izan dela.

Antzeman eta jaso diren datuak bat datoz, bestalde, garaitsu hartan EIMAn etxe barruan egin ziren hainbat txostenetan ageri zirenekin. Hain zuzen ere, honako txosten hauetan esaten ziren baieztapen nagusiekin:

- a) 2000ko otsaileko *Hizkuntza mailako zalantzak* izeneko opuskuluan eta 2001eko apirilko *Zalantza-dantza: txostenetan ageri diren akats, flakezia eta premiak* izenekoan (non koordinatzaileak 2000-09-07tik 2001-03-07ra bitarteko 97 txosteni eginiko balorazio orokorra ageri den).
- b) IABko kideek 2000ko martxo-maiatz bitartean egin zituzten enkarguzko txostenetan.
- c) 2001-02-21eko IABren bileran onarturiko ikasmaterialen estilo-liburuaren zirriborroan adierazitako datuetan.

Molde makur eta ahulen bila ibili da batez ere azterketa hau. Ez beza, beraz, ikuspegi horrek paisaia erreala ilundu, pentsatuz dena txar eta ezkor dela. Alderantziz. Asko dira gailendu diren moldeak. Jakitera eman behar da, adibidez, garai honetakoetan dagoeneko antzeman direla jada EIMAn gerora hobetsi edota lehenetsi diren molde zenbait, aparteko bestelako forma egokiez gainera. Batzuk aipatzen hasita, ahotan har ditzagun, esate baterako, morfologiako eta sintaxiko molde hauek:

- o galde- eta aginte-perpausetan aditza perpaus-hasierara eramatea
- o galde-perpausetan *a/* partikula erabiltzea
- o aditzoinaren forma behar bezala taxutzea
- o etab.

Nolanahi ere, molde makurrak baldin badira aztergai nagusi, komeni da haiek gehiago zehaztea; batez ere, neurri batean edo bestean, eragozpen serio antzeko eta *zarata* ozen direnak. Honatx, bada, haiek nolabaiteko xehetasunez atalez atal hemen segidan.

4.1.1. *Zuzentasun gramatikalaz*

Salbuespenak salbuespen (6), ez dago zer kritikatu handirik, eta garai horretarako lortua den maila txalotu besterik ez dago. Oro har, mordoilokeriarik ez da ageri; nekez topatuko da laprastada larri-larrik (ohartu gabekorik egon daitekeen

arren), eta, egia esan, dauden hutsak bakanak dira: sasiko molde batzuk (gorri kolore...) eta esapide narras batzuk, baina oso urri. Hutsez baino areago, hobetu daitezkeen moldeez aritu beharko genuke beharbada. Hala ere, hobe beharrez, axola digu haietako batzuk hona xeheki aldatzea, nahiz eta estatistikoki adierazgarriak ez izan agian.

Bi dira gehien errepikatzen diren hizkuntza-desoreka edota -desbideratze ohikoenak (nahita idatzi dira *desoreka* eta *desbideratze* hitzak, uste baita aipagai ditugun auziak gehiago direla hizkuntzaren estilistika-kontuak gramatika-kontuak baino), eta horiek dira batez ere gogoan eduki beharrekoak:

- 1) Erakusleen balio anaforiko eta kataforikoei buruzkoak dira gehienak.
 - a. Anaforetan, EIMAn *hauzaleria* izenez (7) deitu izan den erreferentzia-modu gaizki kalkulatuak sortzen du testu-desoreka astunena.
 - b. Katafora-jokoan, erruz aurkitu dira desegokitzat jotako moldeak (beste esanahi bat hartzen dute-eta hala); esate baterako, *hurrengo*, *ondorengo* eta *ondokotekin* eratuak, *honako hau* eta gisakoekin eratu ordez (8).
- 2) Mugagabearen jokoan okerrak edota zalantzak sarri samar ikusi dira.
 - a. Zein euskalkikoa (sic) da?, eta gisakoak, alde batetik.
 - b. Eta zalantzak; hiru astean / hiru astetan; bi partikulez osatua / bi partikulaz osatua, etab. (9)

Gehiago zehaztu beharrez, honako beste hauek aipatu beharko lirateke segidan:

- *haren/bere* genitiboan anafora-sistemako doitze falta
- *bezala* partikularen gehiegikeria
- nominalizazio edo izenzalekeriarako gehiegizko joera
- agintera ez ematea perpaus-hasieran
- *ahal izan* aditzaren neurrigabekeria (diseinatu ahal izateko > (h.) diseinatzeko)
- erdal gerundio *gaizto-faltsuen* erasana (batez ere -z moldearen abusua)
- etab.

4.1.2. Lexikoaz

Inflexio-puntu erabakigarria izan zen Euskaltzaindia, 1994an, *Hiztegi Batua* zehazten eta erabakiak ematen hasi izana. Ordura arte benetako arazo ziren eguneroko hainbat hitzen forma dagoeneko zehaztuta dago ari garen garairako, eta jada, zorionez, ez dira arazo; bat edo beste aipatu behar eta, komeni da gogoratzea zenbat buruko min ematen zuten orduan, esate baterako, honako hauek: *anai-arrebak*

ala *anaia-arrebak?*, *aiton-amonak* ala *aitona-amonak?*, eta beste hainbatek. Anbiguetate horiek gainditurik daude jada.

Hitz batzuk, hala ere, sarri samar, ez dira ematen akademiak araututako formarekin. Honatx behin baino gehiagotan atzemandako batzuk (ezkerreko moldea da 2000. urtearen bueltako ikasliburuetan ageri dena):

<i>beti ere > betiere</i>	<i>ingurugiro > h. ingurumen</i>
<i>nekazal > nekazari(tza)</i>	<i>zine > h. zinema</i>
<i>injineru > ingeniari</i>	<i>partidu > h. partida</i>
<i>koordinaketa > koordinazio</i>	<i>lengoaia > h. hizkuntza, mintzaira</i>
<i>sortarazi > sortu</i>	<i>pertsiar > persiar</i>
<i>izpiritu > h. espiritu</i>	<i>motore > motor</i>
<i>hormairudi > horma-irudi...</i>	

-(g)une ez lotzea aurreko elementuarekin (hiri-gune > hirigune...)

Balio semantikoa hartuz gero kontuan, bestalde, benetako arazo gisa ageri dira garai hartan, oraindik, honako kalko eta esanahi-nahaste hauek:

a) - *desberdin* (aztertutako ikasliburu guztietan ageri da gaizki erabilia, nahiz ez hala izan aldi oro)

- *anitz* zenbatzaileari emaniko adjektibo-balioa

- *aurkitu > egon, eman > gertatu, egon...*

b) - *heritar/hiritar*

- *balio/balore*

- *jarrai/jarraitu, jarraiki*

- *froga/proba*

4.1.3. Ortotipografiaz

Egia da axaleko ñabardurak baino ez direla zenbaitetan ortotipografia-kontuak liburuetan; konbentzio hutsak, bestela esanda. Konbentzio horiek, ordea, ikasmaterialetan, nabarmenak edota nabarmenegiak gertatzen dira sarri, eta, itxurari gagozkiola, erabateko garrantzia dute.

Egia esan, datuak eskuan, aztertutako liburuetan ageri diren erabilera gehienak, premiazkoenak behinik behin, nahiko baturik azaltzen dira. Bada, hala ere, behaztopa eragiten duen konturik. Hona hemen kontu horietako zenbait, andanan lerroz lerro ipiniak, sarritasun-kopuruaren arabera:

- Ohiko hutsegitea da hitz-elkarteko marratxoak koherentziaz ez erabiltzea –irizpide finkorik ez izatea, alegia– hura erabiltzeko aukera egin denean (10).

- Antzeko irizpide-batasun falta ageri da letra larriak/xeheak noiz erabili erabakitzeke orduan.

- Orobat gertatzen da letra etzana noiz erabili behar den ebatzi beharra dagoenean.

- Zenbait argitaletzek beren beregi dute erabakia punturik ez erabiltzea milatik gorako digituetan.

- Ehunekoen sinboloaren ondorengo hutsarteak ez errespetatzea ere ohikoa da, bai halaber deklinabide-jokoan hura mugagabe ez jokatzeko.

- ...

4.1.4. *Onomastikaz*

Izugarria izan gabe ere, 2000. urtearen Inguruko ikasliburuetan, bistakoa da batasun falta eta nolabaiteko nahas-mahasa onomastika-kontuetan. Ez da, baina, ikasliburuei bakarrik egotz dakiekeen hutsunea; arazoa orokorra da. Onomastika-izen denik eta oinarizkoena izanik ere, batasunaren bidean, defizit ikaragarria dago garai horretan edonolako leku- eta pertsona-izenen inguruan, artelanak deitzeko orduan, gertaera historikoak izendatzean...; ezin espero, beraz, eredu maila bateraturik ikasliburuetan ere. Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak, urteak aurrera, gero eta zehatz-ugariagoak baziren ere, hainbatetan motz geratzen ziren euskarak eta eskolak zituzten zalantzak konpontzeko (11). Agerian uzten dute egoera hori, besteak beste, orduko ikasliburuetan aurkitutako honako izen molde hauek:

- 1) Kultura-terminoetan, esate baterako: Errenazimendu, Bepizkunde (> Errenazimentu); Martitz (> Marte)..., edota horien idazkera-konbentzioan: Era sekundarioa (> Era Sekundarioa); Esne-Bidea (> Esne Bidea); Bizkaiko Golkoa (> Bizkaiko golkoa); Bizantzioko inperioa (> Bizantzioko Inperioa); Versaillesko bakea (> Versaillesko Bakea), etab.
- 2) Pertsonaia historikoetan, berriz, honelakoak: Bernat Etxepare (> Bernart), Joannes Leizarraga (> Joanes), Jesukristo (> Jesu Kristo); Adan (< Adam); Eba (> Eva); Felipe II.a (> Filipe II.a), etab.

Informazio faltagatik edo, gainera, erabakitako izenetan eurretan ere bada hutsegiterik, bai kanpoko izenetan: Europako Batasuna, Himalaya, Ertamerika...(> Europar Batasuna, Himalaia, Erdialdeko Amerika...); eta baita euskal jatorrikoetan ere: Donibane Lohitzune (> Donibane Lohizune), Pirineoak (> Pirinioak), Errenteri (> Errenteria)..., eta baita horietariko batzuk deklinatzean ere: *Hondarribiako (> Hondarribiko); *Iruñetik (> Iruñetik)...

4.1.5. *Puntuazioaz*

Argigarriago izateko, labur-zurrean adieraziko dira datuak. Lau bat kontu jakinetara ekar daitezke antzemandako desorekak:

1) Koma falta izatea:

Kaixo Josune. (> Kaixo, Josune.)

Ezin denean gurutzea jarri laukitxoan. (> Ezin denean, jarri gurutzea laukitxoan.)

Parentesiak ez du komuntadurarik behar aurrekoarekin eta irakurketa etengo ez duen tokian jarri behar da. (> Parentesiak ez du komuntadurarik behar aurrekoarekin, eta irakurketa etengo ez duen tokian jarri behar da.)

2) Koma alferrik jartzea (subjektuaren ondorenean jartzearen kariaz):

Arazorik larrienak sortzen dituzten hondakinak, erradioaktiboak dira. (>Arazorik larrienak sortzen dituzten hondakinak erradioaktiboak dira.)

Aparatu horiek, aurretik zinta magnetiko batean gordetako irudiak eta soinuak erreproduzitzen dituzte. (> Aparatu horiek aurretik zinta magnetiko batean gordetako irudiak eta soinuak erreproduzitzen dituzte.)

Elektronikaren esparruko aurrerapen teknologikoen, gaur egungo aspektu politiko, ekonomiko eta gizarte mailako guztiak biltzen dituzte. (> Elektronikaren esparruko aurrerapen teknologikoen gaur egungo aspektu politiko, ekonomiko eta gizarte mailako guztiak biltzen dituzte.)

3) Koma jartzea puntu eta komaren ordean, antolatzaile adibide-emaileekin edota antolatzaile diskurtsiboekin:

Urak material karedunak higatu zituen eta, ondorioz, kobazulo anitzen jatorria izan zen, Santillana del Mar herriaren ondoan dagoen Altamira esaterako. (> Urak material karedunak higatu zituen eta, ondorioz, kobazulo anitzen jatorria izan zen; Santillana del Mar herriaren ondoan dagoen Altamira, esaterako.)

Zentral hidroelektrikoak ibai ondoetan daude kokaturik, Urumean dagoen Arranbide zentrala, esaterako. (> Zentral hidroelektrikoak ibai ondoetan daude kokaturik; Urumean dagoen Arranbide zentrala, esaterako.)

Kontinentearen iparraldean mendikate zaharrak daude, besteak beste, Eskandinaviako mendiak, eta Europa eta Asia banatzen dituzten Ural mendiak. (> Kontinentearen iparraldean mendikate zaharrak daude; besteak beste, Eskandinaviako mendiak, eta Europa eta Asia banatzen dituzten Ural mendiak.)

4) Bi puntuen ordean, komaz markatzea:

1999tik, Europar Batasuneko estatu guztiak moneta bera dute, euroa. (> 1999tik, Europar Batasuneko estatu guztiak moneta bera dute: euroa.)

Langileek beste helburu nagusi bat ere bazuten, botoa eman, batzartu, elkartu eta adierazpen-askatasunerako eskubide politikoak lortzea. (> Langileek beste helburu nagusi bat ere bazuten: botoa eman, batzartu, elkartu eta adierazpen-askatasunerako eskubide politikoak lortzea.)

4.2. Bigarren aldiko ezaugarriak

Ez dago lehenen ezaugarriak egin beharrik bistan dagoena frogatzeko. Aurreneko aldiko ikasmaterialak onak zirela esan bada gorago, aho betean aitortu daitezke aldi honetako ikasmaterial guztiak are zuzenagoak, bikainagoak eta kalitatezkoagoak direla (12). Emaizta profesional sendoa, trebe, landu, airo eta txukuna erdietsi dute eskola-liburuek,

bertute frankorekin gainera. Nori berea ematen hasita, EIMAKo kideen ahaleginaz gainera, ezingo da aipatu gabe utzi argitaletxeetako profesionalek egindakoa ere, jakina.

Lerro gutxitan bada ere, komeni da zenbait puntu abiapuntutik bertatik argi uztea:

a) Argitara aurretik ziren jada bikainak bigarren garai honetako liburuak. EIMAKo azterketara bidalitako azteraldian bertan lortu zuten kalifikazioak aditzera ematen digu haien bikaintasuna. Aztertutako hamalau ikasliburu horien hamarren segizioa eginik, datu hauek ageri dira (13):

- Lauk [1, 7, 8 eta 10]- 1. *Dagoen-dagoenean onartua* kalifikazioa lortu zuten orduan.

- Beste bostek [2, 3, 4, 5 eta 6]- 2A. *Onartzekoa; hala ere hartu kontuan gomendioak* kalifikazioa.

- Batek [11]- 2B. *Onartzekoa; hala ere, zuzenketak egin behar dira* kalifikazioa.

b) Material argitaratua, ondorioz, are bikainagoa da EIMAKo aztertzailen esku-sartzeari esker. Eta baieztapen hori ez da merke-zurrean saldutako merkantzia. Hain da agerikoa zuzentasuna eta hain goi-mailakoa jarduna, ezen hiru ikasliburutan [1, 7 eta 10] ez den esateko moduko akats bat bera ere aurkitu txosten hau osatzeko egindako azterketan.

c) EIMAren liburukietako (eta txostenetako) arau-gomendio guzti-guztiak orpoz orpo jarraitzen saiatzen dira argitaletxeak. Bai gramatika-kontuetan (esate baterako, agintera-aditza aurreratzen; kataforen adierazpidea egoki markatzen...), bai ortotipografiakoetan (energia-ekoizpena vs energi ekoizpena; ekonomia-arazo vs ekonomi arazo; *Hamleten* vs *Hamlet-en*; AEBn vs AEBetan, etab.

d) Aldi joaneko kontuak dirudite hainbat zalantzak eta gorabeherak. Errotik ebakita daude 2000.ean zeuden duda-muda eta ahuldade asko eta asko.

e) Hizkera molde nahiko estandarizatu eta berdintsua darabilte argitaletxe guztiek. Ikasliburuetako hizkuntza konfluentziarako bidean da.

Nolanahi ere, hemen ere, onetik hoberako nahian, komeni da aipatzea kontu batzuk. Hona hemen seinalagarrienak:

4.2.1. *Gramatika*

Argi esan daiteke, gramatika-arloan, ilunpetan zeuden auzi-mauzien kontua asko bakandu dela batasun-bidean. Euskaltzaindiaren azken urteotako arau-gomendioek eta EIMAren estilo-liburuaren eraginak katramila sintaktiko asko erabat askatu dituzte. Hartara, zuzentasun gramatikalari buruz ez dago nabarmentzeko ezer berezirik edota berariazkorik.

Zer edo zer aipatu behar eta, bi gorabehera aipatu behar dira, baina erabat ahapeka biak ere:

a) Aldian behin itzurtzen diren tipologia jakineko akatsak: mug/mugg, zehar-galdera, aditzoina ez markatzea, *behar izan* aditzaren erregimen hobetsia ez jarraitzea, *marroi kolore* gisako izen-sintagma okerrak, etab.

b) Inolaz ere akatsa izan ez baina EIMAKo gomendioetan ageri den *bere/haren* genitiboan anafora-sistemari ez jarraitzea.

4.2.2. Lexikoa

Ez dago zer aipatu handirik lexiko-kontuaz. *Hiztegi Batua* hornitzen eta doitzen Euskaltzaindiak azken urteotan egindako ahaleginak ageriko fruituak ekarri ditu. *Xuxen* zuzentzailearen eragina ere espero zitekeen eraginkortasunez sumatzen da.

4.2.3. Ortotipografia

Testuek daukaten alderik ahulena eta zalantzatiena da agian alor hau. Konbentzio hutseko kontuak izaki gehienetan, ez da txokatzekoa idazkuntzan ageri den batasun falta. Bestalde, hainbeste dira kontuan hartu beharreko xehetasunak ere, non ez den harritzekoa sakabanaketa areagotzea. Barreiatze hori, besteak beste, honakootan ageri da batik bat (lau baino ez dira aipatuko):

- a) Hitz-elkarteetako marratxoa erabiltzean. Hura baliatzeko hautua egindakoa ere (aukera horixe dute egina argitaletxe gehienek) ez da gero beti hartutako erabakiaren arabera jokatzeko. Oraindik ere koherentzia zaileko afera da liburu gehienetan hitz-elkarteetako marratxoaren hau.
- b) Milatik gorako zenbakien idazkeran puntua jarri bai/ez erabakitzean. Zenbait argitaletxek (14) berariaz dute egina puntua ez erabiltzeko hautua.
- c) Letra larriak/xeheak noiz erabili behar diren ebaztean. Xehetasun guztiak kontuan hartzea neketsua gertatzen da nonbait.
- d) Izen propioen ondorenean marratxoa jarri behar izatean (Coulumben legea / Coulob-en legea)

4.2.4. Onomastika

Aurrerakada handia sumatu da alor honetan. Dauden okerrak behingo kontuak baino ez dira ia beti, anekdota hutsak. Letra larri eta xeheen arteko erabilera-jokoan dago koxkarik handiena (Mediterraneo Itsasoa, Sinaiko Penintsula, Bizkaiko Golkoa... >> Mediterraneo itsasoa, Sinaiko penintsula, Bizkaiko golkoa...).

4.2.5. Puntuazioa

Gehiegi luzatu gabe seinalatzen hasita, nolabaiteko makaltasun-, trakestasun-gradua, honakootan ageri da:

- a) komaz ez baliatzean behar beste
- b) puntu eta komari behar besteko jokoak ez ematean
- c) tartekiak emateko maneran

5. Ondorioak eta gerokoak (etorkizunekoak)

Azken burura iritsirik, Azkuek zuen asmoa egiten du bere txosten honek: "hutsak bete, gaitzak senda eta urratuak konpon".

Labur ditzagun ondorioak.

- a) Txosten honek ez du aurkikunde zabal-sakon berri handirik detektatu. Txostengile honen moztasunak ere izango du horretan zerikusirik noski (ziur geratuko zela muturrik egiaztatu beharrekorik!).
- b) Zozokeria handia litzateke, hala ere, dena egina dagoela esatea. Kontziente gara, EIMaren bidez inguruan sortzen dugun sinergia handia izanda ere, gureak baino indartsuagoak direla eskolatik kanpoko indarrak.
- c) Ondorio nagusia da, urte gutxian asko aurreratu dela (izan kontuan aztergai hartu ditugun aldien tartea hamar urtekoa baino ez dela, eta denbora-lagin horrekin ezin askoz gehiago espero). Askok aurreratu da, bai, baina aski?
- d) Onak hobetzea dagokio EIMari. Horretarako, gaiak biltzea eta sailkatzea da eginbidea. Hori, neurri batean, egina dago, zortez. Errealitatea konplexuagoa dela jakinik ere, hobekuntza-bidean landu beharreko gaietako gehienak aditzera emanda daude jada lehendik, eta, alferreko erredundantzia saihesteko, hara jotzea du onena lerro hauen irakurleak. EIMako koordinatzaile ohi honek 2010eko Ugarteburu Terminologia Jardunaldietan emaniko "EIMA eta ikasmaterialen kalitatea" hitzaldian ageri dira osorik jasoak auzi-mauziak, honako sailkapen honekin: hizkuntza-esparrukoak, IKTen esparrukoak, esparru soziolinguistikokoak eta indar-bateratzeen esparrukoak (http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_jardunaldiak2010/eu_jar2010/adjuntos/LIBURUAehuei10-03.pdf) (42.-45. or.).
- e) Hizkuntza-esparrukoaren artean, hitzaldi horretan jaso gabekorik bada, ordea, eta, gaingiroki bada ere, komeni da horiek azaltzea. Eguneroko lanerako premia modura hartuta, honako puntu hauek emango genituzke hangoen osagarri:

Gramatika-alorrean:

Komeniko litzateke koherentzia gordetzeko eskatzea gidaliburuetan eta gisakoetan honelako sekuentziak ematean: edukiak, prozedurak,

gaitasunak, ebaluazio-irizpideak, etab. Argitaletxe gehienek ez dute erabaki eta jarrera irmo kalkulaturik elementu horiek testuratzean. EIMAKo IABk badu horretaz emaniko gomendioa: *-tzea/-tea* aditz-izena erabiltzea (15).

Onomastika-alorrean:

- a) Urteak ez baitoaz aurrera alferrik, orraztu oso bat komeni zaio *Onomastika* liburukiari (batez ere izenen zerrendei). Horko datu-erabakiak 2005ekoak dira, baina, harrezkeroko urteetan, Euskaltzaindiak beste hainbat erabaki gehiago hartu ditu (16), eta zenbaitek talka egiten dute EIMAn bere garaian hartutakoekin. Batzuk aipatze aldera, honatx, esate baterako, hauek:

San Francisco (hiria) (EIMA) > San Frantzisko (170. araua)

Magallanes > Magallaes

Suaren lurraldea > Suaren Lurraldea

- b) Komeniko litzateke ipuinetako pertsonaien izenak nola eman behar diren esplizitate ere; forma adostuak behar dira, eta araua teorikoki garatzea eta izen batzuk integratzea zerrendetan (17).
- c) Orobat litzateke garrantziko, hezkuntza-legeak aldatu bezain pronto (edota aldatzear daudelarik), erabakitzea eta jakinaraztea argitaletxeei ikasketa-maila guztietako irakasgaien, ibilbideen, aukeren eta abarren izen ofizialak, kontuak luzamendutan utzi gabe. Alferreko deskuidu, oker, nahaste eta ahalegin asko saihestuko lirateke.

Ortotipografia-alorrean:

- a) Alde batetik, desiragarria litzateke duela urte batzuk EIZIEK eta IZOK deituta antolatutako mintegiak atondu zuen txostena ahotara ekarri eta aztertzea (18). EIMAREN *Ortotipografia* (2004) liburukiari eginiko ekarpen-proposamen berri zenbait datoz bertan, dagozkien euskarri-argudio eta guzti.
- b) Bestetik, gogora ekarri behar da EIMAKo IABk berak badituela harturik *Ortotipografia* liburukiari egin beharko litzazkikeen ukitu batzuk; nabarmenena *sorta*, *puska* eta *mota* eta horien kideen ingurukoa da (19).
- c) Azkenik, badira bestelako une-unekeo zenbait xehetasun ere esplizitu egin behar liratekeenak. Hemen segidan adierazten ditugu batzuk, pentsatuz kokapen naturalena ortotipografian dutela:
- Zenbakiak noiz eman daitezke letraz / noiz digituz?

- Izenburuetan, kapitulu-hasieretan, paragrafo-buruetan... punturik bai/ez?
- Argazki-oinetako testuak (izen soilak batzuetan, esaldi osoak bestetan), nola? Letra normalean ala etzanean? Puntua bai/ez bukaeran?
- Aurkibideetako edota lauki barruetako elementuen bukaeran, puntua bai/ez?
- (EIZIE-ZIOn txostenean ere ageri da): PETRONOR-en/PETRONORen/PETRONORren?
- Lerroz aldatzean hitza etetea, silabatasuna beti gorde behar al da?
 - Martinez-ek/Martinez-ek?
 - Foucault-ek/Foucault-ek?
- Marratxorik bai ala ez honako hauetan?:
 - "A-ren eta B-ren artean XX litro daude" / "Aren eta Bren artean XX litro daude"?
 - 1. mailako 2B-ko ikasleak / 1. mailako 2Bko ikasleak?
 - "Esan berriro zure NA-aren zenbakia". (*Ortotipografia*, 35. or.) ≠ "DNAren sintesia" (*Zientzia eta Teknikako Euskara Arautzeko Gomendioak*, 111. or.)

OHARRAK

- (1) 2000. urtearen bueltakoak diogu, izan ere, berez, izan, 1999., 2000. eta 2001.ekoak dira. Orobat gertatzen da 2010.aren bueltakoak diogunean: izan, 2009., 2010., 2011. eta 2012.ekoak dira (ikus eranskina).
- (2) Hauxe zen proposamenaren izenburu zehatza: *EIMAre ibilia aztertzeko proposamena*, eta Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuari zuzendu zitzaion 2011ko abenduaren 14an.
- (3) Andres Alberdi: UGARTEBURU TERMINOLOGIA JARDUNALDIAK (2010). "EIMA eta ikasmaterialen kalitatea". http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_jardunaldiak2010/eu_jar2010/adjuntos/LIBURUAehuei10-03.pdf
- (4) Zehatzago esanda, EIMAK 2010-12-21ean bidali zion Euskaltzaindiari ahoskerari buruzko bere liburukigaia, onespenez. Badira bi urte f'ardi, honenbestez. Oraindik, lerro hauek sinatzen dituenak dakiela, ez du inolako erantzunik jaso Euskara Zerbitzuak. Balia dezagun, beraz, txosten hau ahoskeraren (prosodiaren) aldarikapen-aldaba gisa, eta ez noski ahoskera gramatikako beste atalak baino garrantzitsuago delako berez, baizik eta, gaur-gaurkoz, beste zeinahi baino presakakoagoa delako eskoletan, lerro hauek sinatzen dituenaren ustez.

- (5) Halaz ere, inork adibide konkretu eta jakin gehiago behar edo nahi izanez, jakin beza irakurleak hau sinatzen duenak ez duela ezinik haiek papereratzeko, identifikatuta eta gordeta dauzka eta.
- (6) Egia esan, euskal sintaxiaren esparruan, hamaika gai eta zazpi ebidentzia ere baditugu hausnarketa eta eztabaidarako gai, baina alfer lana litzateke hemen orain horien guztien eskizian hastea. Balio beza esateak X. Amurizaren *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* (2012) moduko liburuak duten baino estimu handiagoan hartu beharko genituzkeela.
- (7) Juan Garzia, *Kalko okerrak* (78. or. eta hur.).
- (8) Patxi Petirena, *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* (129. or.).
- (9) *Kalko okerrak* (45. or. eta hur.).
- (10) Garai horretakoetan, nahiz gaurkoetan zorrotz eta zoli erabiltzen duten, Zubiak eta Anayak ez darabilte marratxo hori. Elkar eta Giltza, bai lehen, bai orain, erabiltzearen alde ageri dira nagusiki. Ibaizabalek orduan bai, gaur egun ez.
- (11) 1995eko apirilekoa da onomastikaren alorreko Euskaltzaindiaren lehen araua (32. Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak). Laster etorri ziren beste hainbat ere (36. Frantziako Errepublikako eskualde eta departamenduak, 1995eko ekaina; 38. Munduko estatu-izenak, 1995eko uztaila, etab.). Baina asko geratzen zen batzeko, eta asko nozitzen zuten oraindik gabezia hori garai hartako ikasliburuek.
- (12) Bada, hala ere, salbuespentxo bat: Vicens Vivesen *Lurra* liburua (ikus erreseina eranskinean). Gauza bitxi bat gertatzen da ikasliburu horrekin: bere garaian, ez zuen EIMaren egokitasun-azterketarik pasatu!?
- (13) Hamar aipatzen ditugu. Arrazoiak: besteen txosten-fitxarik ez da aurkitu, dela paper artean galdu delako [14], dela azken ordukoak direlako (*berriak* izatea, alegia; 2012koak [9, 12 eta 13]).
- (14) Ibaizabal eta Anaya (salbuespenen bat edo besterekin).
- (15) 2007-06-06ko bileraren aktan ageri da iritzi hori. Honela dio aktak:
 "Material kurrikularretan ohikoa den gidaliburuetakoa *helburuen*, hiru tipotako *edukien* eta *ebaluazio-irizpideen* adierazpenenak aditz-izenek *-(t)zea* ematea dela egokiena iritzi dio IABk.
 Orobat, ebaluazioetako trebetasun-lorpenak markatzeko erabiltzen diren esapideak era honetara ematea hobesten da, *bai/ez* erako galde-perpauak direnez:
- aditza aditz konposatua denean, hura perpau-aurrera ekarrita; eta trinkoa denean, *ba-* partikula jarrita;
 - nolnahi ere, zehar-galdera modura ere eman litezke".
- (16) Esate baterako, besteak beste, 142. araua: Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak; 149.a: Euskal Herriaren inguruko exonimoak; 156. araua: Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema; 159.a: Europako toponimia fisikoa; orobat Afrikako toponimiaz, Ozeaniakoaz, Amerikakoaz, Asiakoaz, etab.
- (17) EIMAK ez dauka gai horren inguruan arau-gomendio espliziturik, baina IABn adostutako behin-behineko honako gomendio hau luzatu izan zaie orain artean argitaletxei:
1. Izen horiek, oro har, lotuta idatzi ohi dira normalean: Txanogorritxo, Errauskine, Galtzagorri...
 2. Eraketan izen berezia dutenak, aparte ematen dira: Mateo Txistu, Edurne Zuri, Peru Makur, Joxe Konkor, Patxi Begibakarra...
- Oharra: Pintto txakurra, Donald ahatea, Kixki inurria eta gisakoetan dauden osagai generikoak -txakur, ahate, inurri...- ez dira larriz idatzi behar, ez dira izen bereziak eta.

3. Gainerakoak, aparte eta hizki larritz: Katu Botaduna, Lofi Edera, Itzalik Gabeko Gizona...

(18) Mintegi horrek eztabaidatu eta hausnarturikoa hemen aurki daiteke: "Ortotipografiari buruzko mintegia", SENEZ 28. zk., 123.-145. or.

(19) IABren 2007-03-14ko aktaren pasartea:

- a. Izen-elkarteetako **eguzki-lore** moldeko formetan salbuespen modura dagoen hitz multzoa (*sorta, puska* eta *mota* eta horien kideak, alegia) gehiago esplizitatzea izan da hurrengo aztergaia. Honatx erabakiak:
 - i. *Ortotipografia* liburukia berritzen denean, hantxe jasoko dira hemen bertan beherago adierazten diren erabakiak. Dena dela, berritze horretan eta gai honi gagozkiola, testuinguru teorikoari dagokion zenbait aspektu ere jorratu beharko da gaia ahalik eta hobekien azaltzeko (esate baterako, *sorta* ereduak, ikusarazi beharko da *kuantifikazioan* dagoela auziaren kontua, etab.).
 - ii. Koordinatzaileak aurkezturiko zerrenda era honetara geratu da:
 1. *Lore sorta* ereduak:
 - a. EZ dira sail horretakoak, eta beraz, gure gomendioei jarraiki, marratxo idatzi behar dira, honako molde hauek:
zientzia-**alor**, zientzia-**arlo**, zientzia-**esparru**, aire-**masa**,
aire-**bolumen**
 - b. Orobat, *Ortotipografia* liburukian sail horretakotzat hartu izan ziren arren, EZ dira sail horretakoak honako beste hauek ere:
bikote (pare?), kantitate, kopuru, ilara
 2. *Ogi puska* ereduak:
 - a. Ez dira sail horretakoak, eta beraz, marratxo idaztekoak dira beste hauek ere:
denbora-**tarte**, testu-**pasarte**
 3. *Eskola mota* ereduak:
 - a. Ez dira sail horretakoak, eta beraz, marratxo idaztekoak dira beste hauek ere:
zibilizazio-**eite**, nutrizio-**funtzio**, maitasun-**tonu**,
emakume-**itxura**, politika-**kontu**, ironia-**puntu**, ironia-**kutsu**

Eranskina

Lehen garaiko liburuak (2000. urtearen bueltakoak)

Zubia argitaletxearenak:

- (1) *Hizkuntza zabalik* LMH 6, 1999 (1.-15., 84.-107. or. + kontrazala)
- (2) *Matematika* DBH 3 (2000 saila), 1999 (1.-23., 105.-118., 183.-195. eta 247.-256. or.)
- (3) *Filosofia* (Atika), Bat. 1, 2000 (1.-17., 95.-100., 160.-165., 207.-209. eta 244.-249. or.)
- (4) *Inguruaren Ezaguera. Galderen liburua* LMH 6, 1999 (1.-15., 62.-73. eta 140.-151. or.)

Ibaizabal argitaletxearenak:

- (5) *Geografia* DBH 2. zikloa, 1998 (1.-15., 122.-131. eta 226.-233. or.)
- (6) *Euskara. Kometa ibiltaria* LMH 1. zikloa, 2001 (1.-12., 43.-48., 85.-95. eta 130.-133. or.)
- (7) *Matematika (Pitagoras p.)* LMH 5, 1999 (1.-20., 98.-112. eta 174.-185. or.)

Anaya argitaletxearenak:

- (8) *Biologia eta Geologia* Bat. 1, 2000 (1.-23., 77.-87. eta 288.-297. or.)
- (9) *Mundu Garaikidearen Historia* Bat. 1, 2000 (1.-20., 118.-125., 244.-253. eta 420.-426. or.)

Aizkorri argitaletxearena:

- (10) *Teknologia* DBH 2. zikloa, 2000 (1.-20., 64.-88. eta 136.-150. or.)

Erein-Eizie argitaletxearena:

- (11) *Literatura Unibertsala (XVIII-XIX-XX. mendeak)*, Bat. 1-2, 2000 (1.-20., 93.-105. eta 157.-163. or.)

Elkar-GIE argitaletxearenak:

- (12) *Biologia-Geologia (1)*, DBH 4, 1998 (1.-15., 55.-66. eta 81.-83. or.)
- (13) *Biologia-Geologia (3)*, DBH 4, 1999 (170.-181., 207.-221. eta 251.-262. or.)

Editorial Donostiarra argitaletxearena:

- (14) *Plastika eta Ikus-hezkuntza* DBH 4, 1999 (1.-21., 85.-101. eta 131.-136. or. + 15 ariketa)

Giltza argitaletxearena:

- (15) *Erljio Katolika* DBH 3, 2000 (1.-21., 83.-93 eta 149.-160. or.)

Azken garaiko liburuak (2010. urtearen bueltakoak [zehazki , 2009, 2010, 2011 edo 2012koak])

Zubia argitaletxearenak:

- (1) *Ingurunearen Ezaguera* LMH 1, 2011 (1.-50. or.)
- (2) *Txinparta* LMH 6, 2010 (1.-21., 115.-123. eta 160.-167. or.)

Ibaizabal argitaletxearenak:

- (3) *Euskara eta Literatura* Bat., 2010 (1.-22., 61.-71 eta 104.-114. or.)
- (4) *Matematika* LMH 5, 2010 (1.-22., 81.-91. eta 111.-118. or.)

Anaya argitaletxearenak:

- (5) *Gizarte Zientziak. Geografia* DBH 3, 2011 (1.-25., 116.-128. eta 254.-270. or.)
- (6) *Matematika. Proposamen Didaktikoa*, DBH 3, 2011 (1.-20., 93.-103., 200.-207. eta 314.-315. or.)
- (7) *Teknologiak*, DBH 3, 2011 (1.-20., 80.-84. eta 154.-163. or.)

Erein argitaletxearenak:

- (8) *Mundu Garaikiderako Zientziak* Bat., 2011 (1.-17., 88.-98. eta 203.-215. or.)
- (9) *Fisika-Kimika* Bat., 2012 (1.-21., 56.-68., 173.-183. eta 282.-298 or.)

Elkar-GIE argitaletxearena:

- (10) *Urtxintxa* HH, 2010 (lehen bi liburukiak)

Ikastolak argitaletxearena:

- (11) *Euskara. Ulertuz* LMH 4, 2010 (1.-45. eta 90.-99. or.)

Elhuyar argitaletxearena:

- (12) *Primeran metodoa. Ikaslearen liburua*, 2012 (Hasierakoak + 1.-15. eta 77.-95. or.)

Giltza argitaletxearena:

- (13) *Ingurunearen Ezaguera* LMH 4, 2011 (74.-92. eta 128.-144. or.)

Vicens Vives argitaletxearena:

- (14) *Gizarte Zientziak* DBH 4, 2009 (1.-10., 64.-73., 188.-197. eta 250.-257. or.)

Formatu digitalekoak:

- GOÑI OLALDE, Elias: *Filosofiaren historia*, Gabriel Jauregi Batxilergoko materialak, 2009 (4.-10. eta 30.-31. or.)
- ZENBAITEN ARTEAN: Amerikako kontinentearen ezaugarri fisikoak. *Gizarte Zientziak*, DBH 1-3, HOD materiala (lagina: han-hemenka).